

## Malariaren aurrean indartsuenak

**V**anuatu-n bizi dira argazkiko umeak. Azken bizpahiru urteotan bertan beraiekin lanean aritu da Oxford Unibertsitateko ikertzaile-talde bat, herrialde horietan ematen diren malaria-kasuez kezkatuta. Hona hemen ikerketaren emaitzarik harrigarriena: Vanuatu-ko umeak ez dira malariak jota hiltzen nahiz eta *Plasmodium falciparum* parasitoaren formarik hilgarrienak behin eta berriro eraso egiten dien. Portaera bitxi horren arrazoia, berriz, zera omen da: haurtzaroan malariaren *P. vivax* delako formaren eraginpean bizi omen dira ume horiek eta horrek gaixotasunaren kontrako inmu-

Malariaren aurka, berezko babes-mekanismoak garatzen dituzte argazkiko umeek. Oxfordeko ikertzaile-talde batek Vanuatu-n egindako lanaren emaitzak eman ditu ezagutzera.



nitatea ematen omen die. Irailaren bukaeran Glasgow hirian egin den nazioarteko biltzarrean ezagutarazi zuten Vanuatu-ko kasu harrigarri hori Oxfordeko ikertzaileek. Bertan esan zutenenez, bi urte bitarteko umeen artean *P. vivax*-ek kutsatutako malaria-kasuak nagusi diren bitartean, 2tik 5era bitartean *P. falciparum*-a eraginkorragoa omen da; azkenik, bost urtetik gorakoan artean ez da apenas malariarik ematen. Bi forma horien elkarrekintzak inmunitate-sistemak gararazten dituela ondorioztatu dute ikertzaileek.

## Umeak eta trafikoa

**H**irietako trafikoak uste baino kalte larriagoa eragiten digu. Bereziki kezagarria da aire-poluizioak umeengan duen eragina, Osasunerako Mundu Erakundeak berriki eman dituen datuen arabera. Erakundeak egindako txostenean, trafikoak sortutako kalteak aztertu dira, gasolinetakoa berunak osasunarengan duen eragina bereziki; erabateko baieztapenik ematerik ez badago ere, berunak haurrengan sortzen dituen osasun-arazoak helduenganakoak baino larriagoak direla garbi ikusi dute ikertzaileek. OMEk dioenez, bi urte baino gutxiagoko ume-

en artean odolean jasan daitekeen berun-proportzioa gaintitzeak gaixotasun larriak ekar ditzake. Hiru eta bost urte bitarteko haurren % 80 pasatxok garatu du jadanik berunaren ondoriozko gaixotasunik, maila desberdinetan bada ere. Umeak eta aurretik arnas-aparatuko gaixotasunik izan duten biztanleak ageri dira arrisku-taldeetan. Mexikon, esate baterako, osasun-kontrol zorrotzak egin behar izaten dituzte horiek, hiriburuko aire-poluizioa beste inon baino altuagoa baita bertan. Urriaren bukaeran, egoera benetan larria zela ikusita, automobil-parkearen erdia baino gehiago geldiarazteko agindua eman zuen gobernuak eta lantegiengain iharduera % 30 murriztu behar izan zen hiriburuan. Berunaz gain, ozonoaren kontzentrazioa altuegia izateak piztu izan ditu era horretako alarmak Mexikoko hiriburuan.

## Neurririk gabeko medikazioa

**E**gunero 15 botika inguru hartzen dituzte; halabeharrez, gainera, HIESAren ondorioak leuntzearen. Birusak zigortutako organismo ahultan zein ondorio izango dituen horrek ez dago gaur-gaurkoz jaki-



HIESAk jotako gaixoengan substantzia desberdinez egindako "koktelak" zein ondorio izan ditzakeen ez dakigu.

terik, baina Londresko ikertzaile-talde baten iritziz, guztiz kezagarria da joera hori. AZT eta gisa bereko medikazioez gain, aldiro botikak edota depresiokontrakoak maiz erabili behar izaten dituzte gaixoeak. Kasurik gehienetan, gainera, medikuak aginduta. Substantzia desberdinez egindako "koktelak" zein ondorio izan ditzakeen ez dakigu; izan ere, HIESAren kontrako sendabideak nahikoa berriak dira eta oraingo ez dira guztiz ezagutzen epe ertainerako ondorioak. Arazo horretaz kezkatuturik agertu den Londresko ikertzaile-taldeak ez du konponbiderik eskaini, baina ohartzerako kaltea handiegia izan daitekeela esan du. Are gehiago, HIESAren ondorengo izurritea "droga-koktelak" sortutakoa izango dela esan dute.

